



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko ekainaren 28a

92. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, Zientzia eta Teknologiari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa. Osoko Bilkurak onetsia (18. or.).

—Foru Lege proposamena, erlijioaren irakaskuntzari eta haren ordezkoei buruzkoa. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (23. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko 33.2 artikulua aldatzekoa. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (23. or.).

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

—Lege proposamena, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (24. or.).

—Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua aldatzeko lege proposamena. Osoko Bilkurak onetsia (26. or.).

—Lege proposamena, Erljio Askatasunari buruzko uztailearen 5eko 7/1980 Lege Organikoa eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa erlijioaren irakaskuntzari dagokionez aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (27. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Zientzia eta Teknologiari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko ekainaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, Zientzia eta Teknologiari buruzko Foru Legea onetsi zuen

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2018ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Zientzia eta Teknologiari buruzko Foru Legea

HITZAURREA

I

Arlo desberdinetan ikerketa, garapena eta berrikuntza (I+G+b) sortzea, zabaltzea eta aplikatzea funtsezkoa da Nafarroaren aurrerakuntzarako. I+G+b-k oparotasuna areagotzen du, bizikaltatea hobetzen du eta sorkuntzazko konponbideak ekartzen ditu gure gizarteak dituen desafio nagusietarako.

Europar I+G+b arloan lider diren eskualdeen artean kokatzeko erronka eta gaitasuna ditu Nafarroak. Horretarako ditu hiru unibertsitate, zentro teknologiko ezagunak, talentua, pertsona ekintzaileak eta enpresa berritzaileak, lagunduko dutenak halako ekoizpen eredua finkatzen non berrikuntza sistematikoki txertatuko baita ekoizpen sektorean, enpresen tamaina edozein izanik ere, eta non sektore teknologikoek garrantzia handiagoa izanen baitute.

Halaber, zientzia eta teknologiaren eta sare produktiboaren arteko lankidetzakultura garrantzuek bide ematen dio Nafarroari erronka honi arrakastaz heltzeko.

Aldeko baldintza horiek izanik ere, Nafarroak ez du orain arte lege esparrurik izan zientzia, teknologia, ikerketa eta berrikuntza modu integratzen sustatzeko. Foru lege honek behar horri erantzuten dio, eta abiapuntu du Nafarroako gizarteak

eta sektore produktiboak zientziarekin, teknologia-rekin eta berrikuntzarekin duen konpromisoa.

Europako Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzarako Politikaren eta Estrategiaren eta Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen esparruan kokatzen da foru lege hau. Horrekin batera, genero ikuspegia zeharkako kategoria gisa txertatzen da ikerkuntza zientifikoan eta teknikoan, prozesuko alderdietan kontuan hartu beharrekoa emakumeen eta gizonen egiazko berdintasuna bermatzeko.

II

Foru lege honek, xedapen zatian, lau kapitulu ditu, eta xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat eta bi azken xedapen.

Lehenbiziko kapituluaren ezartzen dira foru lege honen xedapen orokorrak, xedea, helburu eta printzipio gidariak jasotzen dira, eta, horiekin, bilatzen da berrikuntzaren alderdi guztietan hobekuntza izan dadila: inbertsioan, bikaintasun zientifikoan, talentuan, ezagutzen transferentzian, eragileen arteko lankidetzan eta haien eta eragile ekonomikoen artekoan, eta I+G+b-ren nazioartekotzean.

III

Bigarren kapituluak Nafarroako I+G+b Sistema (SINAI) arautzen du, eta hura osatzen duten baliabideak finkatu eta horien bikaintasuna sustatzen du. Haren eragileak antolatzen dira, ikerketan eta berrikuntzan egiten duten lana bikaintasunera bideratuz, aukera izan dezan hain lehiakorra den ingurune orokorrari dagokion mailan egoteko, eta Nafarroako gizartearen eta sare produktiboaren erronkei erantzuna emateko. Bikaintasuna lortzeko, honako hauek sustatzen dira: nazioarteko batzorde zientifikoak sortzea, zentroen ebaluazioa, doktoreen kopurua handitzea eta eragileen arteko elkarlan estuagoa. Horretarako, finantzaketa publikorako kontuan hartuko dira eragileen

emaitza zientifikoak, transferentziakoak eta ekonomikoak.

SINAI sistema osatzen duten eragileak taxutzen dira: unibertsitateak, ikerketa zentroak, osasun ikerketarako institutuak, zentro teknologikoak, enpresaren arloko I+G+b unitateak, dibulgaziorako entitateak eta sistemaren koordinatzailea. Ezartzen da zer baldintza bete behar diren eragile akreditazioa lortzeko, eta haien eskubideak aitortzen eta betebeharrak ezartzen dira. Lankidetzaren, gardentasunaren eta genero berdintasunaren printzipioek gidatuko dute eragile guztien jarduketa.

I+G+b arloko jarduerak egiten dituzten Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileak berariaz arautzen dira: unibertsitateak, ikerketa zentroak, zentro teknologikoak, osasun ikerketarako institutuak eta enpresaren arloko I+G+b unitateak. Horientzat, berariazko baldintza gisa ezartzen da langile doktoreak izatea beren plantilletan, aitortzen zaie deialdi berariazkoetan parte hartzeko eskubidea eta betebeharrak berariazkoak ezartzen zaizkie.

Foru legeak estatus berariazkoa ematen dio Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen koordinatzaileari, eta, harentzat, betebeharra da elkarlan akordioak edukitzea sistemako eragileen ehuneko berrogeita hamar baino gehiagorekin eta Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiako sektore guztietako enpresekin. Eskubideak aitortzen zaizkie, eta betebeharrak berariazkoak ezartzen.

Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) Eragileen Erregistroa sortzen da, eta betebeharrak gisa ezartzen da sistemako eragileen ikerketa taldeen eta ikertzaileen zerrenda eguneraturik izatea. Halaber, Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek hirugarrenei emandako teknologia lizentzien Erregistro berezia sortzen da.

Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseilua sortzen du foru legeak, partaidetza eta aholkularitzako organo gisa. Behar diren eginkizunak esleitzen zaizkie, Nafarroako I+G+b arloa dinamizatzeko gomendioak eta txostenak egiteko eta zientzia, teknologia eta berrikuntza plana prestatu eta haren jarraipena egiteko. Kontseilu horrek Nafarroako I+G+b arloko esparru desberdinetako ordezkariak hartzen ditu bere baitan, eta nazioartean izen ona duten pertsonak ekartzen ditu Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiako arlo bakoitzerako.

Halaber, Nafarroako Berrikuntzaren Behatokia sortzen da, eta agintzen zaio behar den sistema garatzea Nafarroako I+G+b Sistemaren (SINAI)

informazioa hedatzeko arlo zientifiko-teknologikoan eta ekonomikoan.

IV

Hirugarren kapituluaren, behar diren neurriak jasotzen dira honako hauek bultzatzeko: ikerketa zientifiko eta teknikoak, berrikuntza, ezagutzaren transferentzia, zabalkundea, eta kultura zientifikoak, teknologikoak eta berritzaileak.

Ezartzen da zer neurri zehaztu behar diren, betiere, zientzia, teknologia eta berrikuntza plan bakoitzean, talentu zientifikoak eta ikertzaileak sustatzeko eta honako hauek bultzatzeko: ezagutzaren transferentzia, elkarlana, nazioartekotzea, jasangarritasuna, espezializazioa, bikaintasuna eta bokazio zientifiko-teknikoa piztea.

Foru lege honek, I+G+b arloa sektore pribatuan sustatuko dela segurtatzeko, baita Nafarroako I+G+b Sistemaren (SINAI) finantzaketa eta hartan jasotako neurriak garatzeko direla ere segurtatzeko, agintzen du ezen ekitaldi bakoitzean Nafarroako Aurrekontu Orokorrek egitean behar adina baliabide esleiri daitezela I+G+b sustatzeko neurrietarako, gutxienez ere finantzarioa ez den urteko aurrekontuko ehuneko bi.

Europar Batasunak helburu gisa finkatu du barne-produktu gordinaren (BPGd) %3 izan den I+G+b arloko inbertsioa. Foru lege honekin, Nafarroak bere egiten du helburu hori 2030. urterako. Eta, halaber, eredu desiragarri gisa ezartzen du I+G+b arloko inbertsioa sektore pribatuan BPGd-aren %2koa izan dadila eta sektore publikoaren BPGd-aren %1ekoa.

Nafarroako Aurrekontu Orokorrek gutxi gorabehera Nafarroako BPGd-aren %20 egiten dute; hortaz, I+G+b arloko inbertsio publikoa BPGd-aren %1ekoa izatea Nafarroako Aurrekontu Orokorren %5 adinakoa izatea da. Ehuneko 5 hori lortu behar da Nafarroan I+G+b arlorako erabilitako inbertsio publiko guztien baturarekin, hau da, Nafarroako Foru Komunitateak unibertsitateak eta I+G+b-ren sustapena finantzatzeko erabiltzen dituen zenbatekoak gehi Estatuak eta Europar Batasunak Nafarroan I+G+b arlorako erabiltzen dituztenak.

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan I+G+b arloaren sustapenerako erabilitako zenbatekoa urtero handitu beharko da, harik eta, 2030. urtean, foru lege honen 23. artikuluan ezarritako finantzaketa publikoaren helburuak lortzen diren arte, zifra hauekin: zehazki 2018. urtean %1,15; 2019. urtean %1,25; 2020. urtean %1,35; 2025. urtean %1,6; eta 2030. urtean %2. I+G+b arlorako baliabide publikoak sendotzeko bide horri eusten zaiola

segurtatzeko, foru lege honetako xedapen gehigarri bakarrean jaso dira sektore publikoak I+G+b arloan aldi honetan izanen dituen inbertsio helburuak.

I+G+b arloaren balio-katea segurtatuko da, existituz aurrekontu-baliabideen esleipenean behar diren neurriak jaso daitezela oinarritzko ikerketa, ikerketa aplikatua, garapena eta berrikuntza sustatzeko, horiek denek finantzaketa jaso dezaten.

Zientzia, teknologia eta berrikuntza Planarekin eta Estatuko eta Europako ikerketa politikako lehentasunezko ardatzekin bat datozen deialdi publikoen bidez banatuko dira I+G+b arloko jardueretarako laguntzak. Orobat, Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileentzako laguntza publikoek segurtatu beharko dute eragileen bikaintasunera bideratuko direla, eta barnean izanen dituzte, balorazio irizpide gisa, bikaintasun eta hobekuntza adierazleak.

Laguntza deialdiek sustatuko dute ikerketa proiektuak batera egin ditzatela enpresek, teknologia eta ikerketa zentroek eta unibertsitateek, transferentziari laguntzeko.

Beste aurreikuspen bat jaso da, alegia deialdien bidez finantzatzen ahalko direla Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen zeharkako gastuak, Europako deialdietan finantzatzen diren zeharkako gastuen portzentajeekin bat, horrela Europako eta eskualdeetako deialdiak homogeneousatzeko, bateratuta egon daitezen eta eragileentzat denak erakargarriak izan daitezen lortzeko.

V

Zientzia, teknologia eta berrikuntza Plana arautzen du laugarren kapituluak; Nafarroako I+G+b arloa planifikatu eta koordinatzeko funtsezko tresna gisa ezartzen du. Nafarroako Gobernuan I+G+b arloan eskuduna den departamentuari dagokio plana prestatzea, esku hartzen duten eragile guztien eta herritarren parte-hartzearekin, eta Nafarroako Parlamentura igorriko da honek eztabaidatu eta onesteko. Planak berak ezartzen dituen eragileei dagokie ekintzak gauzatzea, eta Nafarroako Gobernuan I+G+b arloan eskuduna den departamentuari dagokio jarraipena egitea.

Foru legeak ezartzen ditu Planaren gutxieneko edukiak eta jaso behar dituen lehentasunezko arloak eta arlo teknologiko-estrategikoak. Halaber, jasotzen du ezen haren finantzaketa gauzatu behar dela, Foru Komunitatearen ekarpenez gain, Estatuaren, Europar Batasunaren eta beste entitate publiko eta pribatuen ekarpenekin. Nafarroako

Foru Komunitateko Administrazioak sektore publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana sustatu beharko du plana finantzatzeko.

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da behar den esparrua ezartzea Nafarroan zientzia, teknologia, ikerketa eta berrikuntza sustatzeko.

2. artikulua. Ezagutza eta zientzia ondasun publiko gisa.

Ezagutza eta zientzia ondasun publikoak dira eta honako hauetara iristen dira: balio, informazio, datu lan edo objektuak, oro har, publikoak zein pribatuak, Nafarroako gizarte osoak baliatzen ahal dituenak, dagozkion lege-babeseekin.

3. artikulua. Helburuak.

Hauek dira foru lege honen helburuak:

1. Herritar guztien ongizatea eta bizi kalitatea hobetzea, gizartearen erronkak eta arazoak bideratzen laguntzeko.

2. Europako I+G+b arloan Nafarroa lider bihurtzea, Nafarroako enpresentzat lehiazteko toki hobea lortzea, entitate publikoen kultura eta gaitasun zientifikoa hobetzea, eta I+G+b arloa ardatz duen eredu produktiboa ahalbidetzea.

3. Nafarroako I+G+b Sistema (SINAI) antolatzeko ezagutzaren sorrera, garapena eta aprobetxamendu partekatua sustatzeko kalitatearen, berdintasunaren eta demokratizazioaren irizpidearekin, bai eta ezagutzaren ekoizpenean eta haren emaitzetan parte hartzea ere Nafarroako sektore publikoarekiko, entitate sozialekiko eta sektore produktiboarekiko kooperazioa handituz.

4. Ikerketa sustatzea arlo eta maila guztietan, maila oinarritzkoenetatik hasi eta garatuenetaraino, oinarritzko zientziatik hasi eta zientzia esperimentaleraino eta aplikaturaino, giza eta gizarte zientziak barne.

5. I+G+b arloa epe luzerako baliabide ekonomiko hornituko dela bermatzea, eta horien esleipena eta erabilera koordinatzea.

6. Zientzian, teknologian eta berrikuntzan genero ikuspegia zeharkako kategoria gisa txerta dadila sustatzea, bai eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua ere Nafarroako I+G+b Sistemaren (SINAI) esparru guztietan.

7. Ikerketa zientifiko-teknikoen arloko prestakuntza sustatzea, maila guztietan, lanbide

heziketean, unibertsitatean eta doktoregoetan, gizartearen beharrak ase eta orekatzen lagundu beharrez. Garrantzia emanen zaio bereziki emakumeak CTIM (zientzia, teknologia, ingeniari eta matematika) ikasketetan sartzeari.

8. Nafarroan ikerketarako talentua ziurtatzea, egun dagoena kudeatuz, berria erakarriz, eta ikerlari, zientzialari eta teknikari berriak trebatuz.

9. Enpresaren eta ekintzaitzaren munduan ekimen berritzaile gehiago sortzen laguntzea, oinarri teknologikoarekin, ikerketaren emaitzetan oinarriturik.

10. Lankidetzaren sustatzea, eta ikerketaren ezagutzaren transferentzia egiten laguntzea, Nafarroako I+G+b Sistematik (SINAI) sare produktibora, sare sozialera eta gizartera, oro har.

11. Nafarroan egiten den I+G+b nazioartekotzen laguntzea, bai enpresetan bai Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileetan egiten dena.

12. Ezagutza zientifikoa herritar guztiei zabaltea bultzatzea, zientziaren dibulgazioari laguntzea, eta zientziarentzat eta ikerketarentzat lagungarria den ingurunea sustatzea, gizartean zientziaren, ikerketaren eta berrikuntzaren balioaz dagoen pertzepzioa hobetzeko, garapen ekonomiko eta sozialerako eta ingurumenaren babeserako eragile gisa ikus daitezten.

13. Zientzia, teknologia eta berrikuntza politika eta planak Estatuko Administrazio orokorrekoekin eta Europar Batasunekoekin koordinatzen laguntzea.

14. Neurrian sartzeko Nafarroako Gobernuak finantzaturako ikerketa proiektuen deialdietan, emakumezko eta gizonezko ikertzaileen parekidesuna sustatzeko, bereziki ikertzaile nagusiei dagokienez.

15. Ezagutzarako sarbidea erraztea herritarrei, ondasun publiko kolektiboa den heinean, eta gizarte zibilak Nafarroako I+G+b Sistemari (SINAI) parte hartzea bultzatzea.

16. Nafarroako ondarea handitzea eta aberastea, zientzia, teknologia, historia eta kultura arloetan.

17. Gizartearendako bidezko itzulketak bilatzea, administrazio publikoen bidez, honako hauek gaurtatuko direnak: patenteen gaineko eskubideak, jabetza intelektuala, jabetza industrialak, I+G+b prozesuko une aurreratueta sor daitezkeen spin off-en kapital eta etekineta parte hartzea, eta abar.

18. Talentuaren itzulera erraztea behar diren neurriak hartuz honako arlo hauek: laguntza logistikoa, ekintzaitza edo kontratazioaren sustapena.

19. Lehenetsunez bultzatzea desberdintasun sozialak murriztera bideratutako ekimen zientifikoa, berrikuntzakoak eta lankidetzakoak.

20. Pentsamendu kritikoa eta zientifikoaren kultura eta eredu sartzeko hezkuntza-ibilbideko eremu guztietan Lehen Hezkuntzatik hasita.

4. artikulua. Printzipio gidariak.

Foru lege hau, bere garapena eta bere aplikazioa gidatzen dituzten balio eta printzipioak honako hauek dira:

a) Lankidetzaren.

b) Unibertsaltasuna eta komunalismoa. Ezagutza irekia sustatzea eta zientzia ondasun publikotzat hartzea, gorde eta zabaldu beharrekoa.

c) Gizarteak zientzian parte hartzea.

d) Ezagutzaren eta haren erabileraren kudeaketa demokratizatzea.

e) Teknologia irekiak sustatzea, alegia, teknologia irisgarri eta eskuragarriak; ulergarriak; diseinu manifestua dutenak, gardena, ez opakua; otzan edo malgua, alegia, erabiltzaileak kontrolatzen ahal dituenak; balioaniztunak, aukerako erabilerak izan ditzaketanak.

f) Zuhurtzia-printzipioa, gizakien, abereen edo landareen osasunerako, ingurumenerako edo gizarte ongizaterako izan daitezkeen arrisku ororekiko.

g) Kalitatea eta egokitasuna.

h) Autonomia errespetatzea eta sustatzea oinarritzko ikerketa zientifikoan.

i) Ezagutzaren politiken integrazioa eta zeharkotasuna.

j) Jasangarritasuna.

k) Diskriminaziorik eza. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.

l) Merezimendua eta gaitasuna.

5. artikulua. Herritarren parte hartzea sustatzea zientzian eta ikerketan.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak herritarren parte hartzea sustatuko du zientzian eta ikerketan. Xede horren aldeko neurri batzuk hartuko ditu, besteak beste honako hauek:

a) Parte hartzeko tresna malguak, herritarrei moldatuak, sortzeko bultzada ematea.

b) Zientziaren eta teknologiaren irudi bat sustatzea, arreta emanen diona bere testuinguru sozialari eta erantzukizuna hartuko duena gure planetako bizirako ekar ditzakeen ondorioei begira.

c) Bideak sustatzea herritarrei informatzeko Nafarroako zientzia eta teknologiaren errealitateari eta aurrerapen buruz.

d) Zientziaren inplikazio sozialei buruzko ikerketak sustatzea.

II. KAPITULUA

Nafarroako I+G+b Sistema (SINAI)

6. artikulua. Nafarroako I+G+b Sistema (SINAI).

1. Honako hauek osatzen dute Nafarroako I+G+b Sistema (SINAI): haren parte diren eragile publiko eta pribatu guztiak, eta horrekin batera, erlazioak, koordinazio egiturak eta elkarlanerako lanabesak, Nafarroan ikerketa, transferentzia, balorizazio eta berrikuntza arloko politikak planifikatzea, kudeatzea, betetzea eta haien jarraipena egitea ahalbidetzen dutenak.

2. Honako hauek dira Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileak: sistema horretan finantzaketa, exekuzio edo koordinazio eginkizunak betetzen dituzten eragile publiko eta pribatu guztiak.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta foru sektore publikoko koordinazio-eragile gisa eratuko dira antolamendu metodikorako edo bitarteko eta baliabideak ituntzeko eginkizunak gauzatzen dituztenean ekintza komunak abian jartzeko ikerketaren, balorizazioaren, transferentziaren edo berrikuntzaren alorretan, horien eta Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen arteko informazioa, jarduketan homogeneotasuna eta baterako ekintza errazte aldera.

4. Exekuzioko eragileak dira ikerketa, balorizazio, transferentzia edo berrikuntza lanak egiten dituzten edo haiei laguntza ematen dieten entitate publiko eta pribatuak.

5. Finantzaketako eragileak dira administrazio publikoak, sektore publikoko entitate instrumentalak, unibertsitateak eta entitate pribatuak, beste eragile batzuek egindako ikerketa, balorizazio, transferentzia eta berrikuntza lanen gastuak edo kostuak ordaintzen dituztenean, edo jarduera horiek egiteko behar diren baliabide ekonomikoak jartzen dituztenean.

6. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileetako bakoitzak dauzkan eginkizun berariazkoak eta parte-hartzea ezertan ukatu gabe, sistema horren barruan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere gain hartuko du ikerketaren, balorizazioaren, transferentziaren eta berrikuntzaren emaitzen zabalkundearen koordinazioa, bai eta jarduera horiek eta eragileen balioari esparru sozialean, hezkuntzakoan eta ekonomikoan aitor-tza egitea sustatzeko lana ere, Estatuak ikerketa zientifiko eta teknikoaren koordinazio orokorraren arloan duen eskumena onartuta.

7. artikulua. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen akreditazioa.

1. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragile gisa eratu ahal izateko, entitate eskatzaileek frogatu beharko dute honako tipologia honen arabera: unibertsitatea, ikerketa zentroa, osasun ikerketarako institutua, zentro teknologikoa, enpresaren arloko I+G+b unitatea, entitate bakanak eta exekuzioko eragileen koordinatzailea.

Foru lege honen ondorioetarako, honela ulertuko dira termino hauek:

a) Ikerketa zentroa: oinarrizko eta bikaintasuneko ikerketa entitatea, bere jarduerak garatzen dituen interes zientifikoa duten esparruetan.

b) Osasun ikerketarako institutua: ospitale batean kokatutako ikerketa-entitateak dira, ikerketa traslazonala egiteko eginkizun nagusia dutenak.

c) Zentro teknologikoa: ikerketa entitatea, funtsean teknologia sortzen, garatzen eta enpresarera, instituzioetara eta sare sozialera transferitzen duena.

d) Enpresaren arloko I+G+b unitatea: ikerketa entitatea, funtsean garapen esperimentalean aritzen dena bereziki, eta bere enpresa titularren I+G+b arloko beharrak betetzera bideratua.

e) Entitate bakanak: dibulgaziorako entitatea da, funtsezko eginkizun gisa dutenak gizartean ezagutza zientifikoa eta I+G+b arloaren emaitzak sustatzea, bai eta zientzien, matematikaren, ingeniariaren eta teknologiaren arloko prestakuntza sustatzea ere; halaber, I+G arloarekin lotutako beste entitate batzuk, aurreko motetan sartzen ez direnak.

f) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen koordinatzailea da sistemaren exekuzioko eragile guztien koordinazioa egiten duen eragilea, eta Nafarroako zientzia, teknologia

eta enpresaren arteko erlazioa dinamizatzen duena.

2. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragilearen akreditazioa lortzeko, entitate eskatzaileek honako beharkizun hauek bete beharko dituzte:

a) Helburu gisa izatea I+G+b egitea, koordinatzea edo dibulgatzea.

b) Legez eraturik egotea eta nortasun juridiko propioa izatea, izaera publikoa nahiz pribatua izan.

c) Estatutueta ezarri izatea ez duela irabazi-asmorik, eta mozkinik izanez gero I+G+b arloko jardueretarako edo lortutako emaitzen balorizazio edo transferentziarako erabiliko direla, edo dibulgaziorako, entitate berezien kasuan.

d) Nafarroan kokaturik egotea, eta jarduera nagusia bertan garatzea.

e) Beren kontabilitatean bereiztea jarduera ekonomikoa eta ez ekonomikoa, eta bereiz kontsignatzea bakoitzari dagozkion finantzaketa, kostuak eta sarrerak.

f) Zuzendaritza-organo parekidea izatea, guxtienez 60/40ko proportzioan.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan I+G+b arloan eskuduna den departamentuari dagokio akreditatzeko prozedura ezartzea eta akreditazio horien jarraipena egitea.

8. artikulua. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen eskubideak eta betebeharrak.

1. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileek honako eskubide hauek dituzte:

a) I+G+b arloetako jardueretarako laguntza programa eta deialdietan parte hartzea, parte hartzeko edo laguntza lortzeko beharkizun berariazkoa denean sistemako eragile akreditatua izatea.

b) Sistemako eragile guztien ikerketa azpiegiturak erabili ahal izatea lehentasunezko baldintzetan.

c) Nazioarteko talentua erakartzeko programean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak kudeatzen dituenetan, parte hartu ahal izatea.

d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ziurtagiri bat lortzea noiznahi ere, sistema-ko eragile akreditatua dela dioena.

e) Eragile akreditatu izatearen aitortza publiko instituzionala izatea. Horretarako, foru lege honen

13. artikuluan araututako erregistroan sartu beharko du.

2. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileek honako betebeharrak dituzte:

a) Lankidetzarena:

Lehena. Sistemako gainerako eragileekin elkarlanean aritzea, I+G+b arloko emaitzak optimizatzeko, I+G+b arloko proiektuak eginez, tesietan baterako zuzendaritza izanez edo masterreko bukaerako baterako proiektuak batera eginez, dibulgazio ekitaldien bidez eta enpresarako edo gizarterako ekitaldiak batera eginez.

Bigarrena. I+G+b arloko azpiegiturak Nafarroako I+G+b Sistemaren (SINAI) esku jartzea, ahalik eta baldintza onenetan.

b) Gardentasunarena:

Lehena. Nafarroako Foru Komunitateari eta Nafarroako Berrikuntzaren Behatokiari ematea eskatzen zaizkion txostenak, Nafarroako I+G+b Sistemaren (SINAI) esparruan egindako jardueri buruz, eta estatutueta eta gobernu organoetan dituzten aldaketen berri ematea.

Bigarrena. Ardura handieneko postua, zuzendari nagusia edo antzekoa, prozesu ireki, ez baztertzailerik eta garden baten bidez hautatzea, non baloratuko baitira doktore titulua izatea zentroaren I+G+b arloren batean, master bat enpresen zuzendaritza eta administrazioan, argitalpenak, patenteak eta arloan nazioarteko esperientzia. Hautapena zuzendaritza organoek egiten dute, eskudantzia hori baldin badute, eta batzorde zientifiko-teknologikoak ere parte hartuko du, organo hori dagoen kasuan. Hautapen prozesu horretan kontuan hartuko da emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea, eta eragileek frogatu beharko dute postu horiek betetzeko izangaien zerrendan sexu-etako bakoitzak gutxienez %40ko ordezkartza duela, salbu eta muntazko arrazoi objektiboak daudenean, behar bezala justifikatuak. Unibertsitateek ez dute betebeharrak hori bete beharrik.

3. Bidezko den orotan, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legea aplikatuko da eta Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileak Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzeko Foru Legean ezarritakoaren menpe egonen dira.

c) Berdintasunarena: emakumeen eta gizonen arteko berdintasun plan bat izatea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren IV. titulu-

ko III. kapituluaren ezarritako irismenarekin eta edukiarekin egina eta aplikatua, eta lan arloko legerian adierazitako moduan negoziatua.

d) Klausula sozialak betetzea: Langileen kontratazioan, bidezkoa den orotan, bete beharko dira dagokion araudi sektorialeko klausula eta baldintza sozialak eta lan-arlokoak, azken hori langilearendako mesedegarriagoa den heinean.

9. artikulua. Unibertsitateak, osasun ikerketarako institutuak, ikerketa zentroak eta zentro teknologikoak.

1. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) I+G+b arloko jarduerak egiten dituzten exekuzioko eragile gisa akredita daitezke unibertsitateak, ikerketa zentroak, osasun ikerketarako institutuak eta zentro teknologikoak. Akreditazioa lortzeko, 7. artikuluan eskatutako baldintzak betetzeaz gain, honako hauek ere bete beharko dituzte:

a) Ikertzaile doktoratuak izatea plantillan, emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa aintzat hartuta.

b) Genero parekidetasuna izatea, gutxienez 60/40ko proportzioan, doktoreen artean.

c) I+G+b arloko proiektuak egitea.

d) Nazioarteko I+G+b arloko proiektuetan parte hartzea.

2. Unibertsitateek, ikerketa zentroek, osasun ikerketarako institutuak eta zentro teknologikoek eskubide hauek izan behar dituzte:

a) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek berez dituzten eskubide guztiak.

b) Laguntza deialdi berariazkoetan parte hartzea.

3. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragile guztiak berez dituzten betebeharez gain, unibertsitateek, ikerketa zentroek, osasun ikerketarako institutuak eta zentro teknologikoek honakoa bete beharko dute:

a) Bikaintasun betebeharrak:

1.a Aholku emateko nazioarteko batzorde zientifiko-teknologiko bat izatea, urtero zentroa baloratzen duena eta zuzendariaren hautapenean parte hartzen duena.

2.a Plantillan behar den doktore portzentajea izatea akreditazioari eusteko. Gutxienez ere langile tekniko eta ikertzaileen ehuneko 10 izan behar dira.

3.a Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen akreditazioa lortzeko baldintzak betetzea.

4.a Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatutako aldi behingo ebaluazioak onartzea.

5.a Bere ikertzaileen jardura zientifikoa neuritzea, baloratzea eta saritzea, oinarri gisa hartuta garatutako jarduerak gizartearentzat ekar dezakeen itzulkin ekonomiko eta soziala, I+G+b arloko eragileek sorturiko ezagutza sare produktiboan produktu eta zerbitzu berri edo hobetuen bidez sartzearatik.

b) Transferentzia betebeharrak:

1.a Eragileen arteko elkarlana irakaskuntzan, prestakuntzan eta tesien kozuzendaritzan.

2.a Eragileen arteko ikertzaileen trukea sustatzea.

3.a Enpresaren sektorerako eta gizarte osorako ekitaldi eta prestakuntzak antolatzea eta horietan parte hartzea.

4.a Enpresen sektorearekin I+G+b arloko proiektuak egitea.

5.a Eragileen proiektu, jardura eta emaitzak zabaltzea gizarte-, enpresa- eta produkzio-sareetan, administrazio publikoetan eta gizartea, oro har.

6.a Ikerkuntza-jardueraren emaitzen merkataritza ustiapena egitea, patenteak sortuz, oinarri teknologikoko enpresak sortuz edo produktu eta prozesu berriak garatuz.

7.a Bere ikertzaileen transferentzia-jardura neurtzea, baloratzea eta saritzea, oinarri hartuta zenbait irizpide, hala nola patenteak lortzea patente horiek babestutako teknologiaren merkatu estrategiko nagusi gisa hartzen diren herrialdeetan, edo behintzat Europako patente bat lortu izana, teknologia hori Europako merkatuan babestutako duena, hori baita teknologia jaso dezakeen enpresaren merkatu naturala.

c) Gardentasun betebeharrak: Interneten eguneratuta eta argitaratuta izatea ildo estrategikoak, indarreko zientzia, teknologia eta berrikuntza planean ezarritako adierazleak, kontu auditatuak, giza baliabideei buruzko politika eta aurreko urteko jardueren memoria eta memoria ekonomikoa, non zehaztuko baitira eskura dagoen ikerketetarako azpiegitura, ikerketa taldeak edo ildoak, horien lan arloak eta emaitzak. I+G+b arloko proiektuak, jarduerak eta emaitzak hedatu, argitaratu eta zabaltzeko ekintzetan hizkera ez sexista erabili beharko da, emakumeenganako bereizkeria islatzen duen irudi oro edo estereotipo sexistak saihestu, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari, presentzia orekatuari eta rolen

pluraltasunari lotutako balioak dituen irudia sustatu beharko da.

d) Finantzaketa dibertsifikatua izatea.

10. artikulua. Enpresaren arloko I+G+b unitateak.

1. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) I+G+b arloko jarduerak egiten dituzten exekuzioko eragile gisa akredita daitezke enpresaren arloko I+G+b unitateak. Akreditazioa lortzeko, 7. artikuluan eskatutako baldintzak betetzeaz gain, honako hauek ere bete beharko dituzte:

a) Plantillan ikertzaile doktoreak izatea.

b) I+G+b arloko proiektuak egitea.

c) Entitateko enpresa titularrek teknologia eta berrikuntza erabil dezaten sustatzea, haien lehia-kortasuna hobetzeko tresna den aldetik.

2. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek berez dituzten eskubideez gain, enpresaren arloko I+G+b unitateek honako hauek ere izanzen dituzte:

a) Laguntza deialdi berariazkoetan parte hartzea.

b) Haien enpresa titularrek ezartzen diren zerga beherapen berariazkoak izatea.

3. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek berez dituzten betebeharez gain, enpresaren arloko I+G+b unitateek honako hauek ere izanzen dituzte:

a) Teknologia sortu eta garatzea.

b) Eraitzen merkataritza ustiapena egitea, patenteak sortuz, oinarri teknologikoko enpresa berritzaileak sortuz edo produktu eta prozesu berriak garatuz. Edonola ere, kasua denean saiatuko da, ezarrita legokeen moduan, gizarterako bidezko itzulketak, administrazio publikoen bidez.

11. artikulua. Entitate bakanak.

1. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) entitate bakan gisa akreditazioa lortzeko, 7. artikuluan eskatutako beharkizunak betetzeaz gain, honako beharkizun hauetakoren bat ere bete beharko dute:

a) Oro har gizarteari, haurrei edo helduei edo enpresei zuzendutako zientzia-hedapeneko edo dibulgazioko jarduerak egitea: dibulgazio-materiala sortzea, erakusketa, proiektzioak, ekitaldiak, sariak, ikastaroak edo bestelakoak.

b) Zientzien, matematikaren, ingeniariaren eta teknologiaren arloko prestakuntza sustatzea –

STEM (Science, Technology, Engineering and Mathematics) deitu ohi dena–.

c) Lankidetzan jardutea I+G+b egiten duten eragileekin eta Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen I+G+b emaitzen dibulgazioaren eta hedapenaren arloko eragileen koordinatzailearekin.

d) I+G+b laguntzeko beste jarduera batzuk.

2. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) entitate bakanek honako eskubide hauek dituzte:

a) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek berez dituzten eskubide guztiak.

b) Laguntza deialdi berariazkoetan parte hartzea, parte hartzeko eta/edo laguntza lortzeko beharkizunetako bat denean Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) entitate bakan bat izatea.

12. artikulua. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen koordinatzailea.

1. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen koordinatzailea da sistemaren exekuzioko eragile guztien koordinazioa egiten duen eragilea, eta Nafarroako zientzia, teknologia eta enpresaren arteko erlazioa dinamizatzen duena.

2. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen koordinatzaile gisa akreditatzeko, 7. artikuluan eskatutako beharkizunak betetzeaz gain, honako hauek ere bete beharko ditu:

a) Elkarlan akordioak edukitzea Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen ehuneko 50 baino gehiagorekin.

b) Bere gobernu organoetan honako hauen ordezkari izatea: Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileak, sektore pribatua eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa.

3. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen koordinatzaileak honako eskubide hauek ditu:

a) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek berez dituzten eskubide guztiak.

b) Laguntza deialdi berariazkoetan parte hartzea, parte hartzeko edo laguntza lortzeko beharkizunetako bat denean exekuzioko eragileen koordinatzailea izatea.

4. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen koordinatzaileak honako eginkizun hauek ditu:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren aurrean Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen solaskide gisa aritzea.

b) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen ebaluazio prozesua antolatzea, I+G+b arloan eskumena duen departamentuak eskatu eta gainbegiraturik, bikaintasunera bidean hobetzen joan daitezten laguntzeko.

c) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen bikaintasuna hobetzeko laguntza, honako hauen bidez: jardunbide egokiak, nazioarteko batzorde zientifiko-teknikoak hautatzen laguntzea, Europako proiektu eta sareetan parte hartzen laguntzea.

d) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen lankidetzeta hitzarmenak sustatzea, beren bikaintasuna, gaitasunak eta lehiakortasuna hobetzeko.

e) Nafarroako azpiegitura zientifiko-teknikoen datu-basea eta haren erabilera partekatua kudeatzea.

f) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen I+G+b arloko argitalpen eta proiektuen gordailu bat kudeatzea, kontuan hartuta hizkera ez sexista erabili beharko duela, emakumeenganako bereizkeria islatzen duen irudi oro edo estereotipo sexistak saihestu, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari, presentzia orekatuari eta rolen pluraltasunari lotutako balioak dituen irudia sustatu.

g) Nafarroako I+G+b Sistemak (SINAI) enpresei eta gizarteari buruz duen ezagutza hobetzea, baita bere eragileei eta horien gaitasunei buruzkoa ere.

h) Nafarroako eragile, entitate publiko eta enpresen arteko elkarlaneko eta transferentziako I+G+b proiektuak koordinatzea.

i) Dibulgazio zientifiko-teknikoko ekitaldiak eta sariak antolatzea.

j) Laguntza ematea homogeneizatzeko eta eskualdeko, nazioarteko eta Europako administrazioak eskatutako estandarretara egokitzeko, eta ekonomia, giza baliabideak eta eragileak kudeatzeko sistemak hobetzeko.

k) I+G+b arloa dinamizatzea, bai Nafarroako I+G+b Sistemak (SINAI) bai enpresen sektorean.

l) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen presentzia dinamizatzea, eta informazioa ematea Nafarroako lurraldetik kanpo, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin koordinatuta.

m) Zaintzea Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek betetzen dituztela emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko neurriak, foru lege honetan jasotzen direnak.

n) Zientziaren arloko prestakuntzaren dinamizazioan laguntzea hezkuntza etapa desberdinetan, foru lege honen helburuei jarraikiz.

13. artikulua. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen Erregistroa.

1. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen Erregistroa sortzen da. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan I+G+b arloan eskuduna den departamentuaren menpe egonen da.

2. Departamentu horrek kudeatuko du erregistro hori, eguneraturik eta osorik izatearren Nafarroan I+G+b arloan aritzen diren entitateen zerrenda, eta bermatuko du lege honek ezartzen dizkieten betebeharrak betetzen eta gordetzen dituztela.

14. artikulua. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen ikertzaileak eta ikertzaile taldeak edo ikerketa ildoak.

1. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzio eragileen Erregistroan eguneraturik edukiko da zerrenda bat non bertako entitateen ikertzaileak eta ikertzaile taldeak edo ikerketa ildoak jasoko baitira.

2. Ikertzaile taldeak eta ikertzaileak zer entitateetan aritzen diren, entitate horietako bakoitzaren erantzukizuna izanen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari komunikatzea zerrenda eguneraturik izateko behar den informazioa.

15. artikulua. Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseilua.

1. Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseilua sortzen da, I+G+b arloarekin lotutako aferetarako partaidetza eta aholkularitzako organo gisa.

2. Nafarroako Gobernuan I+G+b arloan eskuduna den departamentuari atxikirik egonen da Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseilua.

3. I+G+b arloan eskuduna den departamentuko kontseilariak, aholku kontseiluak berak proposatu eta kideen gehiengo kualifikatuak onetsi ondoren, foru agindu baten bidez onetsiko du haren antolaketa eta jarduneko erregelamendua, kalitatearen, independentziaren eta gardentasunaren printzipioetan oinarrituta.

4. Departamentu eskuduneko agintari nagusiak erregelamendua onetsi eta hurrengo bi asteetan Nafarroako Parlamentua informatuko da.

16. artikulua. Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluaren eginkizunak.

1. Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluak eginkizun hauek beteko ditu:

a) Zientzia, teknologia eta berrikuntza Plana prestatzeko edo berrikusteko prozesuan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak kontuan hartzeko moduko gomendioak egitea.

b) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileei gomendioak ematea helburuak hobeki lortzeko.

c) Nafarroako I+G+b arloan jarduteko eta dinamizatzeko proposamenak egitea.

d) Zaintzea betetzen direla emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko neurriak, foru lege honetan jasotzen direnak, eta horretarako gomendioak egitea Administrazioari eta Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileei.

2. Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluari behar adina baliabide emanen zaizkio dituen eginkizunak garatu ahal izateko, besteak beste teknologia, ekonomia eta gizarte arloko prospektibako zereginak.

17. artikulua. Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluaren osaera.

1. Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluak kide hauek izanen ditu:

a) Nafarroan diharduten unibertsitateetako bakoitzak proposatutako pertsona bat.

b) Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren arlo bakoitzeko pertsona bat, Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek proposaturik.

c) Zientzia, teknologia eta berrikuntza planean ezarritako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren arlo bakoitzeko pertsona bat, I+G+b arloan nazioarteko izen ona eta sinesgarritasuna dituen, ahal dela arlo teknologiko horretan puntakoa den herrialde batean aritzen dena. I+G+b arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiak proposatuko du.

d) Nafarroako Gobernuan I+G+b arloan eskuduna den departamentuko pertsona bat.

e) Nafarroako Gobernuan kanpo ekintzaren arloan eskuduna den departamentuko pertsona bat.

f) Nafarroako Gobernuan osasun arloan eskuduna den departamentuko pertsona bat.

g) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen koordinatzaileak izendatutako pertsona bat.

h) Nafarroako Gobernuan I+G+b arloan eskuduna den departamentuko funtzionarioen artean izendatutako pertsona bat, kontseiluko idazkari lanak beteko dituen, hitzarekin baina botorik gabe.

i) Pertsona bana Nafarroan kokatuta egon eta aurreko urtean foru lurraldean I+G+b arloko inbertsioaren liderrak izan diren hiru enpresak ordezkatzeko.

j) I+G+b sektoreko langileen bi ordezkari, langileek izendatuak.

2. Aipatu pertsonak izendatzerakoan ahaleginak egingen dira emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin, halako moduz non sexu bakoitzeko pertsonak ez duten gaindituko ehuneko 60ko muga eta ez diren izanen guztizkoaren ehuneko 40 baino gutxiago.

3. I+G+b arloan eskuduna den departamentuaren titularrari dagokio I+G+b arloko Aholku Kontseilua osatuko duten pertsonak izendatzea.

4. I+G+b arloko Aholku Kontseiluko lehendakaria eta lehendakariordea bere kideen artean aukeratu dituzte Kontseiluko kideek.

5. Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluko kide izatea ez da ordainduko, baina joan-etorrien eta egonaldien gastuak ordainduko zaizkie artikuluhonen 1. apartatuko c) letran aipatzen direnei.

18. artikulua. Nafarroako Berrikuntzaren Behatokia.

1. Nafarroako Berrikuntzaren Behatokia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan I+G+b arloan eskuduna den departamentuari atxikia dagoen organo teknikoa da, eta, Nafarroako Estadistika Institutuarekin koordinatuta, informazio sistema bat garatuko du, ahalbidetuko duena Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek duten informazioa eskuragarri jartzea. Behatokiak datuak bildu, tratatu eta zabalduko ditu sexuen arabera bereizita.

2. Helburu hori lortzeko, Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek laguntza emanen dute, I+G+b arloko beren jarduketari buruz Behatokiak eskatzen dien informazioa emanez.

3. Behatokiak honako informazio zientifiko-teknologiko hau argitaratuko du, betiere formatu unibertsal eta berrerabilgarriak erabiliz, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Foru Lege indardunak ezartzen duen bezala:

a) Gaurkotasuna duten berri zientifiko-teknologikoak.

b) Joera zientifiko-teknologikoak eta etorkizuneko beharrak.

c) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen jarduera eta gaitasun zientifiko-teknologikoak, barnean direla eragileen erregistroan (RASNI) jasotako ikerketa taldeak.

d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak finantzaturako ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuen laburpena.

e) Zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arloan genero berdintasunarekin lotuta dauden albisteak.

4. Nafarroako Foru Komunitateko I+G+b arloari buruzko informazio ekonomikoa argitaratuko du Behatokiak. Betiere, honako hau argitaratu behar du:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan I+G+b arloaren finantzaketara bideratutako aurrekontua eta aurrekontuko partidak.

b) I+G+b arloari dagozkion zerga onurak.

c) I+G+b arloko mezenasgoan erabiltzen diren zenbatekoak, mezenasak aldeztatik baimenduta.

5. Behatokiak datuak biltzeko metodologia, adierazle zerranda eta urteko jardueraren oroitzapen eguneratuak prestatuko ditu.

19. artikulua. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek hirugarrenei emandako teknologia lizentzien Erregistro berezia.

1. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek hirugarrenei, –enpresak nahiz I+G+b Sistemako beste eragile batzuk– emandako teknologia lizentzien Erregistro berezia sortzen da, emaitzen transferentziaren gardentasunean laguntzeko neurri gisa eta ikerketa- edo garapen-jardueren arrakastaren neurgailu objektiboa izateko.

2. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragile guztiek izanzen dute lortzen dituzten lizentzia-akordioak jakinarazteko betebeharra.

3. Erregistro honek beharrezkoa den informazioa jasoko du lizentzia-akordio bakoitzari buruz, betiere horrek ez badu arriskuan jartzen aldeei edo akordioaren beraren edukari buruzko isilpeko informazioa eta Nafarroako Gobernuak arau hau garatzeko ezarritakoari jarraikiz.

20. artikulua. Nafarroako I+G+b Sistemaren (SINAI) gaineko sentsibilizazioa eta dibulgazioa.

1. Nafarroako Gobernuak herritarren ezagutza eta interesa sustatuko ditu Nafarroako I+G+b Sistemaren inguruan, eta zientziarekiko interesa haurtzarotik, aurrerapen zientifikoaren garrantzia zabalduz irakaskuntzako maila eta gradu guztietan.

2. Nafarroako Gobernuak ezagutzaren dibulgazioa bultzatuko du, sistemako eragileen eta herritarren arteko komunikaziorako bideak ezarritik.

3. Nafarroan ezagutza sareak eratuko dira, zientzia, hezkuntza, gizarte eta kultura arloetako erakundeen artean, ezagutzaren zabalpena hobetzeko, Nafarroan zientzia eta teknika dibulгатzeko dagoen gune sarearekin koordinatuz.

III. KAPITULUA

Ikerketa zientifiko eta teknikoak, ezagutzaren transferentzia, hedapena eta zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren kultura bultzatzea

21. artikulua. Neurriak.

1. Foru lege honen xedea eta helburuak betetzeko, gauzatuko dira zientzia, teknologia eta berrikuntza plan bakoitzean zehaztutako neurriak, besteak beste hauek:

a) Zientziako eta ikerketako talentua sustatzeko neurriak, honako hauen bidez: doktorego aurreko eta ondoko bekak, industriako doktorego-tarako laguntzak, talentua erakartzeko laguntzak, ikertzaileen mugikortasunerako laguntzak eta I+G+b proiektuak egiteko ikertzaileak eta teknika-riak kontratatzeke laguntzak.

b) Ezagutzaren transferentzia honako hauen bidez sustatzeko neurriak:

Lehena. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen eta enpresen arteko I+G+b arloko transferentziarako proiektuak.

Bigarrena. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek oinarri teknologikoko enpresa berriak sortzea.

c) I+G+b arloko elkarlaneko proiektuak sustatzen dituzten neurriak.

d) Nafarroan egindako I+G+b-ren nazioartekotzea sustatzen duten neurriak, hauen bitartez:

Lehena. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) enpresa eta eragileei laguntzea, nazioarteko I+G+b arloko proiektuetan parte hartzeko.

Bigarrena. Ikertzaileen mugikortasunerako laguntzak.

Hirugarrena. Nazioarteko ikerketa sare eta foroetan parte hartzea.

e) Sistemaren efizientzia sustatzen duten neurriak, laguntzak emanez I+G+b arloko azpiegiturak eskuratzeko eta partekaturik erabiltzeko, eta azpiegitura zientifiko-teknologiko bakanak (ICTS) erabiltzeko.

f) Espezializazioa sustatzen duten neurriak, laguntzak emanez Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen eta enpresen arteko elkarlaneko I+G+b proiektu estrategikoak garatzeko, ebatziko baitituzte gizartearen erronka zientifiko-teknologikoak, zientzia, teknologia eta berrikuntza planetan Nafarroarentzat lehentasunezko zatitza identifikatutako arloetan.

g) Bikaintasuna sustatzen duten neurriak, laguntza berariazkoak emanez Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileei, bikaintasunaren adierazleen hobekuntza baloratuz, esaterako argitalpenak, patenteak, transferentzia, nazioartekotzea eta industriarekin egindako kontratuak.

h) Bokazio zientifiko-teknikoen pizgarri diren neurriak, ikasketa zientifiko-teknikoko prestakuntza sustatuz, indar berezia eginez emakumeen artean, bai eta gizarte guztiari zuzendutako dibulgazio zientifikoa ere.

i) Beste berrikuntza programa batzuekin sinergia izatea errazten duten neurriak, bai Estatuko bai Europako programei dagokienez, eta beste neurri batzuk, Nafarroako eragileak zabalik egon daitezten eta elkarlana izan dezaten Europar Batauneko beste eragile batzuekin, elkarlana bultzatzeko eta balio-kateak sortzeko, espezializazio adimentsuaren estrategiak oinarri.

j) Zientzian, teknologian eta berrikuntzan genero ikuspegia zeharkako kategoria gisa txertatzeko neurriak, bai eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua ere Nafarroako I+G+b Sistemaren (SINAI) esparru guztietan.

k) Ezagutzaren sorkuntza eta oinarritzako ikerketaren garapena sustatzeko neurriak.

l) Zientziaren garapena sustatzeko neurriak, gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-arloetako iraunkortasun irizpideak aintzat hartuta.

m) Zientziaren garapena herritarren arteko desberdintasuna –ekonomia, kultura, emozio eta irisgarritasun arloetako– murrizteko ereduak bateragarri egiteko neurriak.

n) Neurriak ezartzen ahalko dira, errendimenduen arabera laguntza oinarritzako deialdiak, ekonomikoa ez den jardura osorik ere finantzatzeko, zentroaren bikaintasuna eta ikerketarako gaitasuna eta transferentziakoa kontuan hartuta.

ñ) Talentua Nafarroako Foru Komunitatera itzultzea sustatzeko laguntzak ezartzeko neurriak, laguntza logistikoko, ekintzaitzarako eta kontratazioa laguntzeko sistemekin.

2. Aipatutako neurriak neutraltasunaren printzipioa oinarri harturik garatuko dira; printzipio horren arabera, neurri horien aplikazio eremua orokorra izanen da, eta ez da diskriminaziorik izanen eragileen atxikipenarengatik edo horien forma juridikoarengatik.

22. artikulua. Lankidetzaren hitzarmenak.

1. Lankidetzaren hitzarmenak sustatuko dira, Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legeak ezarri bezala, Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen eta beste eragile publiko edo pribatu batzuen artean, baldin nazioarteko, nazioz gaindiko edo atzerriko ikerketa zientifikoko eta teknikoko jarduerak egiten badituzte.

2. Aipatu hitzarmenetan eragileen arteko ikerketa zientifikoen trukea sustatuko da.

23. artikulua. Finantzaketa publikoa.

1. I+G+b lege honetan aurreikusitako esparruetan sustatzeko, Nafarroako Gobernuak, aurrekontu orokorrak prestatzean, urtero handituko ditu I+G+b arloa sustatzeko neurrietara bideratutako zenbatekoak, harik eta 2030. urtean, gutxienez ere urteko aurrekontuko ehuneko 2 erabili arte. Horretarako, zientzia, teknologia eta berrikuntza Planeko aurrekontuko parte diren zenbatekoak bakarrik zenbatuko dira.

2. I+G+b arloan eskuduna den departamentua arduratuko da aurrekontu hori kudeatzeaz honako hauen arabera: Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia, zientzia, teknologia eta berrikuntza Plana eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu bakoitzak ezarritako lehentasunak, zientzia, teknologia eta berrikuntza planean jaso zirenak hura egin bitartean.

24. artikulua. I+G+b-ren balio-katea.

I+G+b-ren balio-katea segurtatzeko, Nafarroako Foru Komunitatean I+G+b arloan eskuduna den departamentuak I+G+b arloan dagoen aurrekontua banatuko du, oinarritzako ikerketa eta ikerketa aplikatua, garapena eta berrikuntza sustatzeko

neurrien artean, halako moduz non bakar bat ere ez den finantzaketarik gabe geldituko.

25. artikulua. Mezenasgoa.

Ikerketaren eta berrikuntzaren arloko mezenasgoa sustatuko du Nafarroako zerga sistemak.

26. artikulua. Fiskalitatea.

Sektore pribatuko I+G+b arloa pizteko, zerga sistema diseinatzean kontuan hartuko dira Nafarroako I+G+b arloan duen kokapena hobetzen laguntzen duten printzipioak.

27. artikulua. I+G+b-rako laguntzen deialdi publikoak.

1. I+G+b arloko jardueren laguntzak deialdi publikoaren bidez emanen dira oro har.

2. Nafarroako zientzia, teknologia eta berrikuntza Planarekin eta Estatuko nahiz Europako ikerketa politikako lehentasunezko ardatzekin bat egin beharko dute deialdiek, eta bultzatuko dute Estatuko edo Europako beste funts batzuekin sinergia izatea. Esparru honetan genero arrakala desagertzera bideratutako klausulak ere jasoko dituzte.

3. Deialdi horien bidez, gizartearen behar eta erronkei erantzuten dieten eragileak, ikertzaileak, proiektuak edo azpiegiturak finantzatzeko dira; zientzia, teknologia eta berrikuntza Planean ezarritakoak izanen dira behar eta erronka horiek.

4. Transferentzia bultzatzeko, laguntzen bidez sustatuko da ikerketa proiektuak batera egin ditzatela enpresek, teknologia zentroek eta ikerketa zentroek, osasun ikerketarako institutuak, Osasun Departamentuko zentroak eta unibertsitateak.

5. I+G+b arloko sistemako eragileen zeharkako gastuen portzentaje bat finantza dezakete deialdiek, Europako deialdiek finantzatzen dituzten gastuen portzentajeekin bat.

28. artikulua. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileentzako laguntza deialdiak.

1. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen bikaintasunerako orientazioa segurtatzeko, eragile horientzako laguntza publikoen deialdi guztietan, balorazio irizpide gisa erabiliko dira bikaintasun eta hobekuntza adierazleak, gutxienez ere honako hauek jasoko dituztenak: plantillako doktore kopurua, argitalpenak, patenteak, sortutako oinarriko teknologikoko enpresak, industriarekin I+G+b arloan izandako proiektuen fakturazioa, lortutako Europako finantzaketa, eta zientzia, teknologia eta berrikuntzarako indarreko Planean ezarritako gainerako adierazleak.

2. Nafarroako I+G+b Eragileen Sistemako (SINAI) iraunkortasuna segurtatzeko, I+G+b proiektuetarako, ekipamenduko inbertsioetarako eta hedapen eta dibulgazio zientifikoko jardueretarako laguntzen deialdiez gain, beste deialdi batzuk ezartzen ahalko dira, errendimenduaren arabera, laguntza oinarrikoetarako deialdiak, ekonomikoa ez den jarduera osorik ere finantzatzeko, zentroaren bikaintasuna eta ikerketarako gaitasuna eta transferentziakoa kontuan hartuta.

29. artikulua. Ikerketarako eta berrikuntzarako laguntzen eta diru-laguntzen kudeaketa.

Biomedikuntzaren arloko eta osasun zientzien arloko ikerketa, garapen eta berrikuntzarako diru-laguntza guztiak Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean xedatutakoaren arabera izanen dira, honako zehaztapen hauekin:

a) Ikerketarako, garapenerako eta berrikuntzarako diru-laguntzak bideratu ahalko dira proiektu zehatzak finantzatzera, edo ustiaketarako diru-laguntzaren izaera eduki ahalko dute, Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragile gisa aitortutako zentroetako ikerketaren oinarriko egitura sortu eta sustengatzeko behar diren egitura-gastuen finantzaketan parte hartzera bideratutako diru-laguntzarena.

b) Ikerketarako, garapenerako eta berrikuntzarako diru-laguntza eta transferentzia guztiak urte anitzekoak izan daitezke, garatu beharreko ekintzetan aurreikusitako ezaugarri eta epeen arabera.

c) Oinarri arautzaileek besterik ezartzen ez badute, ikerketarako, garapenerako eta ikerketarako diru-laguntzetan ematekoa den urteko zenbatekoa guztiz aurreratu ahalko da.

IV. KAPITULUA

Zientzia, teknologia eta berrikuntza plana

30. artikulua. Zientzia, teknologia eta berrikuntza plana.

1. Nafarroako zientzia, teknologia eta berrikuntza Plana ezartzen da Nafarroako I+G+b arloko politikak planifikatu eta koordinatzeko funtsezko tresna gisa.

2. Nafarroako zientzia, teknologia eta berrikuntza Planean xedea izanen da helburuak ezartzea Nafarroako I+G+b-ren esparruetan epealdi zehatz batean, eragileen eta eskuragai dauden baliabideen koordinazioa eta nazioko eta nazioarteko planekin bat egitea.

3. Oro har, lau urtekoa izanen da planaren indarraldia.

31. artikulua. Zientzia, teknologia eta berrikuntza Plana egitea.

1. Nafarroako Gobernuan I+G+b arloan eskuduna den departamentuari dagokio zientzia, teknologia eta berrikuntza Plana egitea.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko departamentuek eta sektore publikoko entitateek, nork bere esparruan, proposatuko dute zer ekintza sartu zientzia, teknologia eta berrikuntza Planean.

32. artikulua. Zientzia, teknologia eta berrikuntza Planaren helburuak.

Nafarroako zientzia, teknologia eta berrikuntza Planak helburu hauek izanen ditu:

1. Foru lege honen helburuak eta xedeak garatzea eta I+G+b-ren bikaintasuna, transferentzia, lankidetzatza, internalizazioa eta dibulgazioa sustatzea, une bakoitzeko egoerara egokituz eta gizarteak une bakoitzean eskatzen dituen erronkei erantzunez, modu orekatuan babestuz oinarritzko ikerketa eta ikerketa aplikatua.

2. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen bikaintasun maila hobetzea, bikaintasun adierazleak ezarriz eta ezagutza berria sortzeko bitartekoak emanez.

3. Etorkizunari aurrea hartzea eta sare produktiboa eta Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileak bideratzea behar diren teknologietara, halako moduz non Nafarroak aukera izanen baitu gizarteak planteatzen dituen etorkizuneko erronkei konponbideak eskaintzeko.

4. Zientzian, teknologian eta berrikuntzan genero ikuspegia zeharkako kategoria gisa txerta dadila sustatzea, bai eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua ere Nafarroako I+G+b Sistemaren (SINAI) esparru guztietan.

5. Abian jar dezan bokazio zientifiko eta teknologikoen foru plan bat, genero-arraila murrizteko ere lagungarria izanen dena, arreta berezia ematen diona zientzia eta teknologiako titulazioen sustapenari Foru Komunitateko lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan.

33. artikulua. Zientzia, teknologia eta berrikuntza Planaren gutxienezko edukiak.

1. Zientzia, teknologia eta berrikuntza Planak ezarriko ditu, Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiarekin bat, I+G+b arloko lehentasunezko arloak.

2. Zientzia, teknologia eta berrikuntza Planak honako gutxienezko eduki hauek jasoko ditu:

a) Honako hauen analisia: Nafarroan I+G+b arlorako partidak duen egoera, eta Estatuko, Europako eta nazioarteko I+G+b arloarekin duen erlazioa.

b) Honako hauen deskribapena: helburu orokorrek, lehentasun zientifikoak, teknikoak eta sozialak lehentasunezko arloetan eta behar diren teknologia estrategikoak, horien plangintza eta Estatuko eta Europako programekin duten erlazioa.

c) Honako hauen deskribapena: Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileak, ikerketa arloak, giza baliabideak eta azpiegiturak, adierazleak, helburuak eta beharrak.

d) I+G+b-a transferitzeko eta sustatzeko neurriak. Berrikuntza sistemako eragileekin lankidetzan I+G+b proiektuak egiteko laguntzak, Europako I+G+b proiektuetan parte hartzeko laguntzak, pizgarri fiskalak eta doktoreak enpresetan sartzeko programak garatzea.

e) Irakaskuntza zientifiko-teknikoak sustatzeko neurriak.

f) Dibulgazio zientifikorako laguntza neurriak, baita inplikaturako erakundeetarako ere, esaterako museoetarako, planetarioetarako eta zientziaren dibulgazio zentroetarako.

g) Planaren aurrekontua.

h) Genero, gizarte, ekonomia eta ingurumenaren ikuspuntutik planak izatea espero den eragina.

34. artikulua. Zientzia, teknologia eta berrikuntza Planaren lehentasunezko arloak eta teknologia estrategikoak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek eta gainerako eragileek lehentasunezko ikerketa arloak proposatuko dituzte, Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren esparruan, baita lehentasunezko arlo horietan ezarritako helburuak lortzeko behar diren teknologia estrategikoak ere. Halaber, Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluak gomendioak egin ditzake arlo eta teknologia horiei dagokienez.

2. Lehentasunezko arlo teknologiko-estrategiko bakoitzeko, egoki diren ekintzak zehaztu beharko ditu Planak:

a) I+G+b arloko lehentasunak.

b) Behar diren ikertzaileak eta prestakuntza.

c) Behar diren azpiegiturak eta zer neurritan dauden eskura.

d) Jarduera arlo horretan zentratuak duten Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileak eta enpresak.

e) Estatuan eta Europan dauden deialdiekiko sinergiak.

f) Egokitzat jotzen diren ekintza bereziak.

3. Eskura dauden finantza baliabideen banaketa optimizatzeko, lehentasunezko arloak eta arlo teknologiko-estrategikoak zehaztuko dira halako moduz non ahalbidetuko baita I+G+b arloko plan nazional eta europarrekin identifikatzea.

35. artikulua. Zientzia, teknologia eta berrikuntza Plana onestea.

1. Nafarroako Gobernuari dagokio Zientzia, teknologia eta berrikuntza Plana taxutzea, partehartze publikoko prozesu bat egin ondoren. Ondoren Parlamentuari igorriko dio, bertan eztabaidatu eta onesteko.

2. Behin plana onetsirik, elektronikoki argitaratuko da Nafarroako Gobernuak Interneten duen Atarian (www.navarra.es), eta herritarrentzako kontsultagai egonen da.

3. Zientzia, teknologia eta berrikuntza Plana plan estrategikoa izanen da, eta haren aurrekontua sartuko da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren diru-laguntzen plan estrategikotan.

36. artikulua. Zientzia, teknologia eta berrikuntza Planaren gauzatzea eta jarraipena

1. Planak berak une bakoitzean ezartzen dituen eragileei egokituak zaie zientzia, teknologia eta berrikuntza Planeko ekintzak gauzatzea.

2. Orobat, Nafarroako Gobernuan I+G+b arloan eskuduna den departamentuak gauzatuko ditu planaren gauzatzearen eta helburuen betetze mailaren jarraipena, aldi behingo ebaluazioa eta koordinazioa, Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluaren eta Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen koordinatzailearen ekarpenak jasoz.

Xedapen gehigarri bakarra. I+G+b arloko inbertsio helburuak Nafarroan.

Botere publikoen jarduketa gidatzeko xedez, honako inbertsio helburu hauek ezartzen dira Nafarroan I+G+b arlorako:

Nafarroan, I+G-b-rako bideratutako inbertsio helburua 2030. urterako: BPGd-aren %3.

Nafarroan, sektore publikoan I+G+b-rako bideratutako inbertsio helburua 2030. urterako: BPGd-aren %1.

Nafarroan, sektore publikoan I+G-b-rako bideratutako inbertsio helburua 2030. urterako: Nafarroako aurrekontu orokorren %5.

<i>Sektore publikoan I+G-b-rako bideratutako inbertsio helburua 2030. urterako, Nafar. Aur. Orokorrei eta ekarpenei dagokienez</i>	<i>Unibertsitateak</i>	<i>I+G-ren sustapena</i>	<i>I+G-rengatiko zerga-deskontuak</i>	<i>EBk Nafarroako I+G-rako egindako ekarpena</i>	<i>Estatuak Nafarroako I+G-rako egindako ekarpena</i>
% 5	% 1,6	% 2	% 1	% 0,2	% 0,2
I+G+b plangintza	2018	2019	2020	2025	2030
Unibertsitateen portzentajea aurrekontuetan	1.5	1,5	1,5	1,5	1,6
I+G+b-ren sustapenerako portzentajea aurrekontuetan	1.15	1,25	1,35	1,60	2
Estatuak eta EBk Nafarroako I+G+b-rako egindako ekarpenen portzentajea, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan	0.4	0,4	0,4	0,4	0,4
Zerga-deskontuaren portzentajea aurrekontuan	1.00	1,00	1,00	1,00	1,00
% guztira: sustapena + unibertsitateak + fiskala + Estatuaren eta EBaren ekarpenak/Naf. Aur. Or.	4.05	4,15	4,25	4,50	5,00
% guztira: sustapena + unibertsitateak + fiskala/BPGd	0.81	0,83	0,85	0,9	1,00

Xedapen iragankor bakarra.

Foru lege hau onesten den unean Nafarroako I+G+b Sistemako exekuzioko eragileek ez badi-tuzte betetzen 7.2.f) eta 9.1.b) artikuluetan ezarri-tako genero berdintasunari buruzko betebeharrak, betebeharrak horiek helburu gisa ezarri beharko dituzten 8.2.c) artikuluan jasotako Berdintasun Planean. Betebeharrak hiru epean bete behar-ko dira gehienez ere.

7.2.f) artikuluan ezarritako betebeharraren ondorioetarako, ulertuko da zuzendaritza organoa dela Zuzendaritza Batzordea edo kide anitzeko organo baliokidea.

Azken xedapenetan lehenengoa. Erregela-mendu bidezko garapena.

Baimena ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta I+G+b arloan eskudun den departamentuari foru lege hau aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzaten.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko ekainaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2018ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa

HITZAURREA

Gauza jakina eta nabarmena denez, oso zabal da memoria historikoari buruzko aragintza; eta, zehazki, sinbolo frankistei buruzkoa.

Azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legeak argi finkatu zuen zein izan behar duen administrazio publikoen jokabideak, eta prozedura bat ere zehaztu zuen, zeina oinarrituta baitago zentsu baten prestaketan eta zentsu horri 5. artikularen bidez sortutako Batzordeak emandako onespenean. Egitate administratibo hori gauzatu egin da jadanik.

Nolanahi ere, toki entitateekin lankidetzan sinbolo frankistak banan-banan zerrendatzeko ekimenak berekin ez dakar sinbolo horiek kentzeko betebeharra. Hori dela eta, aztarna frankistak kentzea, tartean toki entitateak daudenean, udala kudeatzen duten pertsonen borondate onaren esku geratzen da. Gauza bera gertatzen da sinbolo edo aipamena erakunde pribatu baten jabetzaren barruan kokatuta dagoenean.

Beste autonomia erkidego batzuek jada egin duten bezala, lege honek zehapen-araubide bat ezarri nahi du, legearen betetzea ez dadin diskrezionala izan gai garrantzitsu eta sentibera hauetan, horrelakoak baitira lege honetan arautzen direnak.

Anomalia demokratiko bat da estatu-kolpe frankista hasi zenetik 81 urte igaro direnean kale eta eraikin askotan oraindik ere ukiezin gisa irautea diktadurak bere burua hiri-ingurunean ere inposatzeko ezarri zituen sinbolo eta aipamenetako batzuek.

Horri dagokionez, abenduaren 26ko 52/2007 Legeak, gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak aitortu eta zabaltzeko eta haien aldeko neurriak hartzeko buruzkoak, honako hau zehaztu zuen bere zioen azalpenean: "halaber, zenbait neurri ezartzen dira (15. eta 16. artikulua) gerra zibileko edo diktadurako sinboloak eta oroigarriak dagokienez, altxamendu militarren, gerra zibilaren eta diktaduraren errepresioaren gorespen oro ekiditeko printzipioa oinarri, konbentziturik gaudelako herritarrek eskubidea dutela hori horrela izan dadin, sinbolo publikoak elkargunerako aukera izan daitezkeen, ezen ez liskar, laido edo bidegabekeriarako".

Horixe dio, halaber, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen zioen azalpenak, sinbologia frankista aipatzen duenean: “Bidezkoa da, halaber, Nafarroako Parlamentuaren 2003ko martxoaren 10eko adierazpenean jaso zen bezala, «Nafarroako erakundeek baliabideak jartzea askatasunaren aurkako elementu sinbolikoak, denok gainditu nahi dugun iragan horren adierazle ere badirenak, desagerrarazteko». Horri dago-kionez, berretsi eta osatu beharra dago Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legearen xedapen iragankor bakarrak eta Gerra Zibilean eta diktaduran jazarpenera edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak aitortu eta zabaldu eta haien aldeko neurriak hartzeari buruzko abenduaren 26ko 52/2007 Legearen 15. artikulua ezarritakoa; zeren eta, urteak igaro diren arren, bai baitaude oraindik ere sinbolo batzuk, kendu beharko lirakekeenak, biktimen zatitza eta gizarte demokratikoaren balioentzat laidogarri izateagatik.

Horrenbestez, badago zuzenbidearen eta moralaren arloetako betebeharrak ukatzeko, gure hiri eta herrietako kale eta eraikinetako sinbolo frankistak behin betiko kentzeari ekitekoa. Eta jarduketa muntaduna denez, eta batez ere urgente eta eztabaidaezina, garrantzitsutzat jotzen da zehapen-araubide bat ezartzea.

Artikulu bakarra. Azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzen da, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa. Hona aldaketak:

Bat. 11. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“11. artikulua. Sinbolo, idazkun eta aipamen frankistak kentzea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko departamentu eskudunak eta Nafarroako toki entitateek, beren eskumenez baliatuz, behar diren neurriak hartuko dituzte, ken daitezten altxamendu militarra, Gerra Zibila eta diktadura pertsonalki nahiz kolektiboki oroitze edo goratzeko armariak, intsigniak, plakak, banderak eta beste edozein objektu edo aipamen. Hori guztia ez da eragozpen izanen biktimek, haien senitartekoen edo memoriaren alorreko entitateek urratsak egin ahal izan ditzaten ohorerako eta duintasunerako beren eskubidearen defentsan.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoaren ondorioetarako, aipatu administrazioek elementu horien

jabeei, eskubideen titularrei, edukitzaileei edo paratu izanaren nahiz paratuta jarraitzearen arduradunei eskatuko diete ken ditzaten eraikin eta toki pribatuetatik, baldin eta irismen edo erabilera publikoko espazio ikusgarri batean proiektzioa badute, administrazio publiko batek paraturikoak ez direnean. Kentzearen zailtasun teknikoarekiko proportzionala den epe bat emanen diete horretarako, eta ohartaraziko diete zer hertsapen-neurri hel litekeen agindua bete ezean.

3. Jabeei, eskubideen titularrei, edukitzaileei edo arduradun partikularrei emandako epea iraganik, baldin eta behartuta daudenez ez badute jardun, erretiratzeko agindua eman duen administrazioak bere esku izanen du:

a) Azken lau urteetan memoria historikoaren arloan emandako bere eskumenerako diru-laguntza eta laguntza publikoen erretiratzea xedatzea, eta hurrengo lau urteetan zehar halakorik emateko debekua ezartzea.

b) Hertsapen-isunak ezartzea, ondoz ondo hamabi jarri arte, hilabeteko alditan, 600 eta 6.000 euro bitartekoak. Erretiratu beharreko elementuaren entitatearen arabera justifikatuko da zenbatekoa. Betiere, ezarri den azken hertsapen-isunaren ondoriozko borondatezko betetzearen epea amaiturik, administrazioak modu subsidiarioan exekutatu du kentzea, behartuta dagoenaren kontura.

4. Baldin eta armariak, intsigniak, plakak, banderak edo bestelako objektu eta aipamenak administrazio edo entitate publiko batek jarri bazituen bere garaian, edo eraikin publikoetan badaude, administrazio jarduleak kendu beharko ditu, bere aurrekontuen kargura.

5. Aurreko zenbakian xedatutakoa betetzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko departamentu eskudunak eta Nafarroako toki entitateek lankidetzaren hitzarmenak sinatzen ahalko dituzte, edo ordenamendu juridikoan jasotako bestelako lankidetzaren formulak erabili.

6. Halaber, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko departamentu eskudunak eta Nafarroako toki-entitateek, beren eskumenera baitan, aurreikusitako edo ekidin egiten dute ekitaldi publikoak egitea, baldin eta haiek beraiekin badaukarte biktimek edo haien senitartekoen ospegalera, gutxiespena edo umiliazioa, kolpe militarren edo frankismoaren goraipamena, edo omenaldiak egin nahiz sariak ematea kolpe militarra eta diktadura aldeztu zituzten pertsona fisiko edo juridikoei”.

Bj. V. titulua gehitzen da. Hona edukia:

“V. TITULUA
Zehapen araubidea

19. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Foru lege honetan ezarritako betebeharrak urratzen dituzten egiteak edo ez-egiteak titulu honetan xedatutakoaren arabera zehatuko dira, ezertan baztertu gabe egon daitezkeen beste erantzukizun batzuk eta foru lege honen 11. artikuluan aurreikusitakoaren aplikazioa.

2. Foru lege honetan tipifikatutako arau-hausteei dagokienez, zehapen-ahalmena baliatuko da bertan eta administrazio publikoen araubide juridikoaren eta zehapen-prozedura administratiboaren arloko araudian ezarritakoaren arabera, bai eta gure ordenamendu juridikoaren arau orokorre jarraituz ere.

20. artikulua. Zehatzeko ahalmena egikaritzea.

1. Foru Komunitateko Administrazioari dagokio zehapen-ahalmenaren egikaritzea, titulu honetan tipifikatutako arau-hauste administratiboak egin dituen edozein pertsona fisiko edo juridikoren gainean.

2. Arau-haustetzat jotzen diren egitateengatik zehapena ezarriko zaie haien erantzule diren pertsona fisiko edo juridikoei.

21. artikulua. Erantzuleak.

1. Foru lege honetan tipifikatutako arau-hausteen erantzuleak dira titulu honetan deskribatutako egite eta ez-egiteetan dolo edo erruz jarduten diren pertsona fisiko eta juridikoak, bai eta, kasu bada, nortasun juridikorik gabeko batasunak eta entitateak eta jaraunspen-ondareak ere, independenteak zein autonomoak.

2. Erantzule solidarioak izanen dira foru lege honen aurkako egiteak edo ez-egiteak agindu dituzten pertsonak.

3. Erantzukizuna pertsona bati baino gehiagori batera baldin badagokie, modu solidarioan erantzunen dute, salbu eta posible denean erantzule bakoitzaren partaidetza-maila ebazpen zehapen-jartzailean zehaztea. Erantzukizuna pertsona juridikoena baldin bada, horien administratzaileek edo ordezkariak solidarioki erantzunen dute.

22. artikulua. Arau-haustekak.

1. Foru lege honetan xedatutako arau-haustekak oso astunak, astunak edo arinak izan daitezke.

2. Hauek dira arau-hauste oso astunak:

a) Indusketak egitea 1936ko kolpe militarren ondorioz izandako errepresioaren biktimen gorpuzkiak hobitik ateratzeko asmoz, Hilotzak lurpetik ateratzeko Nafarroako Foru Komunitateko Protokoloa –zeina Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariaren azaroaren 7ko 772/2011 Foru Aginduaren bidez onetsi baitzen– bete gabe.

b) Baimenik gabeko lur mugimenduak egitea edo eraikitzea, baldin eta lur horretan biktima desagertuen gorpuzkiak daudelako ziurtasuna bada-go.

c) Foru lege honen 6. artikuluan aipatzen den hilobi-mapan sartutako biktima-hobiak suntsitzea.

d) Nafarroako memoria historikoaren toki batean integratuta dagoen ondasun bat, edo ondasun horren parte bat, suntsitzea edo larriki aldatzea.

e) Foru lege honen 13. artikuluan aipatzen den Nafarroako memoria historikoaren agiriak suntsitzea, bai eta 8. artikuluan ezarritakoari dagokienez DNA probak baimenik gabe suntsitzea ere.

f) Nafarroako memoria historikoaren toki batean edozein obra edo esku-hartze egitea horretarako baimenik gabe, baldin eta biktimen hobiei edo lurperatze klandestinoei eragiten badie.

3. Hauek dira arau-hauste astunak:

a) Justifikaziorik gabe urratzea Gerra Zibileko edo diktadura frankistako errepresioaren biktimek izan daitezkeela taxuz pentsa litekeen gorpuzkiak aurkitu izana jakinaraztearen betebeharra, foru lege honetan ezarritakoaren arabera.

b) Lurperatze klandestinoetako edo hobietako gorpuzkiak horretarako baimenik gabe lekuz aldatzea.

c) Nafarroako memoria historikoaren toki batean integratuta dagoen ondasun bati, edo ondasun horren parte bati, kalte larriak egitea, arau-hauste oso astuna ez denean.

d) Nafarroako memoria historikoaren toki batean edo foru lege honetan araututako seinalizazioan kontserbatze- eta mantentze-betebeharrak ez betetzea.

e) Biktimen hobiei edo lurperatzei eragiten dien edozein obra edo esku-hartze egitea horretarako baimenik gabe, baldin eta, horren nolakotasunari erreparatuta, arau-hauste oso astuna ez bada.

f) Elementu, sinbolo, idazkun eta aipamen frankistak kentzeko errekerimendua egiten duen ebazpena ez betetzea, bai eta estatu-kolpe frankista eta geroko diktadura aldezteagatik nabarmendu

ziren pertsonen aldeko aipamenei eta omenaldi berruzko elementuak berrezartzea edo elementu berriak jartzea ere.

g) Foru lege honetan aipatutako biktimen omenaldi edo oroimenezko plakak, monumentuak edo bestelako elementuak baimenik gabe kentzea edo haustea. Horiek pintaketa, ebaki edo bestelako marken bidez aldatzea oroituen edo omenduen memoria iraintzeko edo laidotzeko xedez, biktimak iraintzeko xedez edo 1936ko altxamendu militarreko eta diktadura frankistako parte-hartzaileen, sustatzaileen edo legitimatzaileen apologia edo goraipamena egiteko xedez.

h) Gerra Zibilaren edo diktadura frankistaren biktimei begira iraingarriak edo laidogarriak diren edo haien duintasunari eraso egiten dioten adierazpenak egitea edo erabiltzea edozein hedabide-tan, hitzaldi edo mintzaldi publikoetan edo plataforma digitaletan, baldin eta jokabide horiek ez badaude tipifikatuta gorrotora bultzatzearen delitu gisa.

4. Hauek dira arau-hauste arinak:

a) Nafarroako memoria historikoaren tokietako espazioei edo altzariei kalteak egitea, non eta ez diren arau-hauste astunak edo oso astunak.

b) Nafarroako memoria historikoaren toki batean edozein obra edo esku-hartze egitea horretarako baimenik gabe, non eta ez den arau-hauste astuna edo oso astuna.

c) Pintaketa, ebaki edo bestelako marken bidez aldatzea plakak, monumentuak edo oroimenezko edo omenezko bestelako elementuak, baldin eta ez bada biktimak iraintzeko asmoz egiten.

d) Foru lege honetan ezarritako baldintzak, betebeharrak edo debekuak urratzea, baldin eta artikulua honetako arestiko apartatuetan tipifikatuta ez badago.

23. artikulua. Kalifikazioa astunago egitea.

1. Berrerortze kasuan, hasiera batean arintzat kalifikatutako arau-hausteak astun gisa kalifikatuko dira, eta hasiera batean astuntzat kalifikatuak, berriz, oso astuntzat.

2. Berrerortzea zehapen-arloko ordenamendu juridikoko arau orokorren arabera balioetsiko da.

24. artikulua. Zehapenak.

1. Foru lege honetan tipifikatutako arau-hausteei diruzko zehapenak eta zehapen ez-diruzkoak ezarriko zaizkie.

2. Diruzko zehapenak isunak izanen dira, honako zenbateko hauek izanen dituztenak, arau-haustearen astuntasunaren arabera:

a) Arau-hauste oso astunak: 10.001etik 150.000 eurora bitarteko isuna.

b) Arau-hauste astunak: 2.001etik 10.000 eurora bitarteko isuna.

c) Arau-hauste arinak: 200dik 2.000 eurora bitarteko isuna.

3. Zehapen ez-diruzkoak zehapen osagarriak izanen dira, eta honako hauek izanen dira: memoria historikoaren arloko diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko eskubidea galtzea, gehiezin ere bi, hiru eta bost urtez, arau-hauste arin, astun eta oso astunen kasuan, hurrenez hurren; eta memoria historikoaren arloan emandako diru-laguntza guztiz edo partzialki itzultzea.

Beti ere, diru-laguntza edo laguntza publikoen deialdi publiko orotan jasoko da diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko dela eta diru-laguntza itzuli beharko dela baldin eta foru lege honetan debekatutako jarduera bat egitera edo betetzera bideratzen bada diru-laguntza hori.

4. Zehapenak graduatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan:

a) Pertsonen edo ondasunen egindako kalteen izaera eta astuntasuna.

b) Berrerortzea.

c) Sare sozialen edo plataforma digital zehazten bidez erabili edo zabaltzearen ondorioz gertakariak gizartean izandako oihartzuna.

d) Arau-haustea, kasua bada, lortutako etekina.

e) Administrazioak alde aurretik egindako ohararazpen edo errekerimenduen ez-betetzea.

f) Egindako kalteak borondatez konpontzea edo arau-haustearen gauzatzea ekarri zuten egitateak zuzentzea, baldin eta zehapen-prozeduran behin betiko ebazpena eman aurretik jokatzen bada horrela.

g) Diruzko zehapenaren zenbatekoa ezartzeko, kontuan hartuko da arau-haustea egitea ez dadila izan zehapenaren zenbatekoa baino onuragarriagoa, diru aldetik, arau-haustearantz edo arau-haustearantz.

25. artikulua. Prozedura.

1. Arlo honetako arau-hausteak salatzeak akzioa publikoa izanen da.

2. Foru lege honetan aurreikusitakoaren arabera arau-haustea izan daitezkeen jarduketan berri duten agintariak behartuta daude halakoak jakinaraztera memoria historikoaren arloan eskuduna den departamentuari.

3. Prozedurari ofizioz emanen zaio hasiera, memoria historikoaren arloan eskuduna den organoaren titularrak harturiko erabakiz, dela bere ekimenez, dela goragoko agintari baten aginduz, beste organo batzuen eskari arrazoituz edo herriarren salaketa baten ondorioz.

4. Titulu honetan ezarritako zehapenak ezartzeko, administrazio publikoen araubide juridikoaren eta zehapen-prozedura administratiboaren arloko araudian ezarritako prozedura-xedapenei jarraituko zaie.

5. Arau-hauste oso astunak eta astunak egiteagatik ezarritako zehapen irmoak argitaratuko dira bidezko diren bitarteko ofizialetan eta foru erkidegoan zabalpen handiena duten egunkarietako batean.

26. artikulua. Zehatzeko eskumena.

Honako hauek izanen dira eskudunak foru lege honetan tipifikatzen diren arau-hausteengati-

ko zehapen-espeditenteak irekitzeko eta ebazteko:

a) Arau-hauste oso astunak badira, memoria historikoaren arloan eskuduna den departamentuaren titularra.

b) Arau-hauste astunak eta arinak badira, memoria historikoaren arloan eskuduna den zuzendaritza nagusiaren titularra”.

Xedapen gehigarria.

1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru legearen 11. eta 12. artikuluetan ezarritakoa ez betetzeak berekin ekartzen ahalko du kasuko zehapenak jartzeari, xedapen gehigarri hau indarrean sartzen denetik urtebete igarotzen denetik aitzina.

Azken xedapena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, erlijioaren irakaskuntzari eta haren ordezkoei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko ekainaren 21ean egindako bileran, ezetsi egin du erlijioaren irakaskuntzari eta haren ordezkoei buruzko Foru Lege proposamena.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2018ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko 33.2 artikulua aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko ekainaren 21ean egindako bileran, ezetsi egin du Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko 33.2 artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2018ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legea aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko ekainaren 21ean egindako bileran, Lege proposamena, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legea aldatzeko Lege proposamena onetsi zuen, Kongresuko Mahaiari bidaltzeko, Konstituzioko 87.2 artikulua xedatutakoarekin bat.

Agintzen da aipatu lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2018ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Lege proposamena, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuak, Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko presako neurriei buruzkoak, beste neurri batzuen artean onetsi zuen osasun-laguntzaren izaera unibertsalari uko egitea. Izaera unibertsal hori, Espainiako Konstituzioaren 43. artikuluan xedatutakoaren ondorioz –bertan aitortzen da osasunaren babeserako eskubidea–, azken helburu gisa jasota zegoen, bai Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrean, bai Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legean, bai eta Osasun Publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 Lege Orokorrean ere. Zehazki, murriztu egin zen osasun laguntzarako eskubidea, Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoak

aitortutakoa Espainian dauden atzerritarren alde, espainiarren baldintza berberetan, ohikotasunez bizi diren udalerriko erroldan inskribatuta badaude.

Espainiako osasun sistemarako sarbidean, unibertsaltasunaren printzipio hori bertan behera utzi, eta aseguramendu-eredu bat ezarri zen, zeinetan osasun laguntzarako eskubidea aitortuta dutenak beren lanarengatik kotizatzen ari diren pertsonak baitira. Aseguradunarekin batera, onuradunaren figura agertu zen, zeinak, haren mende, halaber baitauka aitortuta osasun laguntza. Estatu Kontseiluak jada adierazia zuen, 2012ko uztailaren 26ko 82672012 irizpenean, 16/2012 Errege Lege Dekretuak "aseguradun" eta "onuradun" izaera bikoitzeko eskema batean sakontzen zuela. Eskema bikoitz hori inplizituki jasota dago 1974ko Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean, eta hobeki dagokio osasun laguntza kotizaziopeko prestazio baten gisara hartzen duen ikusmolde bati, ezen ez Estatuko eta autonomia erkidegoetako aurrekontu orokorrekin finantzatutako prestazio unibertsal baten gisara hartzen duen bati –horixe da egun gure kasua, eta horregatik, disfuntzio batzuk erakar zitzaizkeen–.

Nolanahi ere, aseguradun edo onuradun izaera ez zuten pertsonak kanpo uzteak eragina izan zuen, nagusiki, egoera irregularrean zegoen biztanleria immigrantearengan, zeinak ezin izanen baitzuen aurrerantzean osasun sistemarako sarbidea Espainiako biztanleriaren baldintza beretan izan. Nazioarteko erakundeen hainbat txostenek arreta deitu zuten Espainiako immigranteen eskubideetan gertatutako gibelatzeari buruz eta gure herrialdeak giza eskubideen arloko betebeharrak ez betetzeari buruz. Horien artean daude Eskubide Ekonomikoei, Sozialei eta Kulturei buruzko Nazioarteko Ituna eta Nazio Batuen Nazioarteko Konbentzioa, arraza-bereizkeria mota guztiak ezabatuzkoa. Arrazakeria, arraza-bereizkeria, xenofobia eta horiekin lotuta dauden intolerantzia-modu garaikideetarako errelatore bereziak,

“Osasungintzako bazterketaren eraginak immigrante ahulenengan” izenburuko txostenean aipaturikoak, berariaz aipatu zuen gai hori Espainiara 2013an egin zuen bisita zela-eta, eta gomendatzen du “egungo krisi ekonomikoa dela-eta egindako osasun erreformak” berrikusteko, “bermatze aldera immigranteek osasun laguntzako zerbitzuetarako sarbidea izan dezatela, edozein dela ere haien migrazio-egoera”.

Ildo beretik, Muturreko Pobreziaren eta Giza Eskubideen errelatore bereziak bere kezka azaldu zituen migratzaileek osasungintzarako sarbidea izatea dela-eta, Espainiako agintariei 2013ko azaroan, Nazio Batuetako giza eskubideen arloko beste aditu batzuekin batera, igorritako gutun batean. Gutun horretan ohartarazten zuen ezen Espainiako Gobernuak 2012an egindako aldaketek, “osasun publikoaren sistemarako sarbidea murrizten dutenek”, ez dituztela betetzen “herrialdearen betebeharrak giza eskubideen arloan”. Halaber, jasotzen du Espainiak osasun arretarako sarbidearen arloan betebeharrak positiboak badituela, horren barne direla migratzaileekiko betebeharrak, haien egoera juridikoa edozein dela ere. Eskubide Sozialen Europako Batzordeak 2014ko urtarrilean ondorioztatu zuen ezen Espainiak hartutako erabakiak, dokumentaziorik gabeko immigranteentzako doako laguntza medikorako sarbidea murriztekoak, giza eskubideen europar legeria urratzen duela. Nazio Batuen Erakundearen Eskubide Ekonomiko eta Sozialen Batzordeak antzeko gomendioak egin zituen 2012an.

Neurriaren ondorio negatiboak berehala iritsi ziren. Beren dokumentazioa berrituz izan ez zuten edo asilo-eskaera ukatu zitzaizen milaka pertsonak osasun sistema publikorako sarbidea galdu zuten. Oro har, segurtasun juridikoaren falta izugarri bat gertatu da immigranteentzat, osasun laguntza jasoko duten ala ez jakiteari dagokionez; osasun zerbitzu autonomikoentzat ere bai, pertsona horiek onartzeko orduan edo horiei larrialdietako laguntza emateko orduan, bai eta Espainian legezko egoiliar direnentzat ere, zeren eta ez baitaude behar bezala babestuta eta auzitegiatarajo behar izan baitute, eskubidea aitortzeko.

Horrenbestez, bidezkoa da aipatutako errege lege dekretuak sortutako egoerari konponbidea ematea, legeria halako moldez aldatuz non prestazio unibertsal gisara jasoko baita osasun laguntza, eta, bereziki, hura hedatuko baita Espainian ohiko bizilekua duten atzerritarrenganaino.

Artikulu bakarra.

Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen 3. artikulua testu hau izanen du:

«3. artikulua. Eskubideen titularrak.

1. Honako erabiltzaile hauek dira osasunaren babeserako eta Osasun Sistema Nazionalaren osasun laguntzarako eskubideen titularrak:

a) Espainiar guztiak eta Espainian dauden atzerritarrek, espainiarren baldintza berberetan, ohikotasunez bizi diren udalerriko erroldan inskribatuta badaude.

b) Espainian dauden atzerritarrek, baldin eta aurreko paragrafoan sartuta ez badaude, urgentziarako osasun-laguntza publikorako eskubidea dute gaixotasun larriak edo istripuak dituztenean, horien arrazoia edozein dela; bai eta laguntza horren iraunkortasunerakoa ere, senda-agiria lortu arte. Espainian dauden hemezortzi urte baino gutxiagoko adineko atzerritarrek osasun-laguntzarako eskubidea dute, espainiarren baldintza berberetan. Espainian dauden atzerritar haurdunek osasun-laguntzarako eskubidea izanen dute haurdunaldiak iraun bitartean, erditzean eta erditu ostean.

c) Europar Batasuneko kide diren estatuetako nazionalitatea dutenek Europar Batasuneko zuzenbidetik eta Espainiako Estatuak sinatzen dituen eta aplikatzekoak zaizkien itun eta hitzarmenetatik heldu diren eskubideak dituzte.

d) Europar Batasunekoak ez diren estatuetako nazionalitatea dutenek legeek eta sinatutako itun eta hitzarmenek aitortzen dizkieten eskubideak dituzte.

2. Administrazio publikoek osasunaren arloko beren ekintzak bideratuko dituzte halako moldez non neurri aktiboak ezarriko baitituzte, ez dadin diskriminaturik gerta kultura-, hizkuntza-, erlijio-, gizarte- edo ezgaitasun-arrazoiak direla medio Osasun Sistema Nazionalaren osasun prestazioen benetako eskuragarritasunerako zailtasun berezia duen ezein biztanleria-kolektibo».

Xedapen indargabetzailea.

1. Indarrrik gabe uzten dira lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

2. Bereziki, berariaz indargabetzen dira Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioari eta Kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen 3.bis eta 3.ter artikulua.

Azken xedapena.

Lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua aldatzeko lege proposamena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko ekainaren 21ean egindako bileran, Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua aldatzeko Lege proposamena onetsi zuen, Kongresuko Mahaiari bidaltzeko, Konstituzioko 87.2 artikulua xedatuta-koarekin bat.

Agintzen da aipatu lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2018ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua aldatzeko lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Hezkuntza da gizartearen zutabeetako bat; hortaz, gizarte-eraldakuntzarako oinarrizko elementu bat da. Halatan, botere publikoek garatu beharreko hezkuntza-politikak printzipio jakin ba-

tzuk bete behar ditu; besteak beste, hezkuntza-sistema laiko baten aldeko apustua.

Helburu horrek talka egiten du Espainiako Konstituzioaren 27.3 artikulua gaur egungo testuak ezartzen duenarekin; izan ere, artikulua horren arabera, “botere publikoek bermatzen diete gurasoei, beren sinesmenak direla eta, seme-alabek haien arabera erlijio- eta moral-heziketa jasotzeko duten eskubidea”.

Hezkuntza-sistema laiko baterantz joateko, ezinbestekoa da, lehenik eta behin, Konstituzioa aldatzea, halako moduan non ahalbidetuko baitu etorkizunean erlijio konfesionala ez irakastea eskola-curriculumean.

Artikulu bakarra.

Espainiako Konstituzioaren 27. artikuluko 3. apartatua kentzen da.

Azken xedapena.

Konstituzioaren aldaketa hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Lege proposamena, Erlijio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoa eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa erlijioaren irakaskuntzari dagokionez aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko ekainaren 21ean egindako bileran, Erlijio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoa eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa erlijioaren irakaskuntzari dagokionez aldatzeko Lege proposamena onetsi zuen, Kongresuko Mahaiari bidaltzeko, Konstituzioko 87.2 artikulua xedatutakoa erekin bat.

Agintzen da aipatu lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

Iruñean, 2018ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Lege proposamena, Erlijio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoa eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa erlijioaren irakaskuntzari dagokionez aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Hezkuntza da gizartearen zutabeetako bat; hortaz, gizarte-eraldakuntzarako oinarriko elementu bat da. Halatan, XXI. mendeko hezkuntza-politikak printzipio jakin batzuk bete behar ditu; besteak beste, hezkuntza-sistema laiko baten aldeko apustua.

Espainiako Estatuan Konstituzioa onetsi ondoren, Erlijio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoaren lehen artikuluan ezartzen da erlijio- eta kultu-askatasuna deritzonerako eskubidea, Konstituzioak aitortutako oinarriko eskubide gisa, aipatu lege organikoan ezarritakoarekin bat bermatzen dela. Ildo horretatik, bigarren artikulua gehitzen duenez, eskubide horien aplikazioa benetakoa eta eragingarria izan dadin, botere publikoek behar besteko neurriak hartuko dituzte, euren mendeko establezimenduetan erlijio-laguntza ahalbidetzeko, bai eta irakaskuntzazentro publikoetan erlijio-heziketa ahalbidetzeko ere.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 2. xedapen gehigarriak, erli-

jioaren irakaskuntzari dagokionez, ezartzen du erlijio katolikoaren irakaskuntza egokituko dela Egoitza Santuaren eta Estatu espainolaren artean izenpetutako Irakaskuntzari eta Kultura Gaiei buruzko Akordioan ezarritakora. Horretarako, eta akordio horretan xedatutakoari jarraiki, erlijio katolikoa arlo edo jakintzagai gisa sartuko da bidezko hezkuntza-mailetan. Nahitaez eskaini beharrekoa izanen da ikastetxeentzat, eta borondatezkoa ikasleentzat.

Beste alde batetik, aipatu xedapenak gehitzen duenez, beste erlijio batzuen irakaskuntza egokituko da Espainiako Estatuak Espainiako Erlijio Erakunde Ebanjelikoen Federazioarekin, Espainiako Komunitate Israelarren Federazioarekin eta Espainiako Batzorde Islamikoarekin egindako Lankidetzak Akordioetan eta, hala badagokio, etorkizunean beste erlijio-konfesio batzuekin izenpetzen diren akordioetan xedatutakora. Halaber, dagokion erlijio-agintari bakoitzari eskumenak esleitzen dizkio, bai curriculum eta ebaluatu beharreko ikaskuntza estandarrek zehazteko, bai testuliburu edo material didaktikoen erabilerari buruzko erabakiak hartzeko.

Aurrekoarekin loturik, Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeari buruzko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak emandako testuan, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak berak xedatzen du –18. artikuluan, Lehen Hezkuntzarako; 24. eta 25. artikuluetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako; eta 34. bis eta ter artikuluetan, Batxilergo-erlijioaren irakaskuntza egonen dela hezkuntza-maila horietako berariazko irakasgaien artean; lehen aipaturiko bigarren xedapen gehigarriaren arabera, eskaintza hori ikastetxeentzat nahitaezkoa eta ikasleentzat borondatezkoa izanen da, erlijio katolikoaren kasuan. Beste alde batetik, abenduaren 29ko 1630/2006 Errege Dekretuak ezartzen du, beste alderdi batzuen artean, erlijio-irakaskuntzak Haur Hezkuntzako bigarren zikloan sartuko direla, xedapen gehigarri berean ezarritakoari jarraiki.

Hezkuntza-sistema laiko baterantz joateko, ezinbestekoa da behar diren lege-aldaketek ekitea, eskola-curriculumean erlijio konfesionala ez irakasteko. Horretarako, ezinbestekoa da gaur egun Estatuan indarra duten legezko xedapen horiek aldatzea.

1. artikulua. Erlijio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoa aldatzea.

Erlijio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoa honela aldatzen da:

Bat. Bigarren artikulua b) apartatuaren c) letra honela idatzita geldituko da:

“c) Erlijioari buruzko era guztietako informazioa jasotzea eta ematea, ahoz, idatziz edo beste edozein prozeduraren bidez; beren sinesmenen arabera erlijio- eta moral-heziketa hautatzea, norberarendako eta haren menpeko adingabe emantzipatugabeendako eta ezgaituendako, eskola eremutik kanpo”.

Bi. Honela idatzita geldituko da bigarren artikulua hiru apartatua:

“Hiru. Eskubide horien aplikazioa benetakoa eta eragingarria izan dadin, botere publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte, establezimendu publiko, establezimendu militar, ospitale, laguntza-izaerako establezimendu, espetxe eta euren mendeko beste establezimendu batzuetan erlijio-laguntza ahalbidetzeko”.

2. artikulua. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzea.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa honela aldatzen da:

Bat. 18. artikulua b) apartatuaren b) letrak honako testu hau izanen du:

“b) Balio sozial eta zibikoak.”

Bi. 18. artikulua b) apartatuaren hirugarren eta laugarren apartatuak kentzen dira.

Hiru. 24. artikulua b) apartatuaren b) letra honela idatzita geldituko da:

“b) Balio etikoak”

Lau. 24. artikulua c) letraren zazpigarren eta zortzigarren apartatuak kentzen dira.

Bost. 25. artikulua b) apartatuaren b) letra honela idatzita geldituko da:

“b) Balio etikoak”

Sei. 25. artikulua c) letraren bederatzigarren eta hamargarren apartatuak kentzen dira.

Zazpi. 34 bis. artikulua b) letraren zazpigarren apartatua kentzen da.

Zortzi. 34 ter. artikulua j) letra kentzen da.

Bederatzi. Bigarren xedapen gehigarria aldatzen kentzen da.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrak gabe uzten dira maila bereko edo apalagoko arau guztiak, arau honetan ezarritakoari aurka egiten dioten heinean.

Azken xedapenetako lehenengoa.

Gobernuari baimena ematen zaio lege honetan xedatutakoa aplikatu, garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman eta behar diren neurriak hartzeko.

Azken xedapenetako bigarrena.

Lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.